

## Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak parte hartuko du ekainaren 19ko Lanbai enplegu eta formazio azokan

2014/06/10

Ekainaren 19an egingo da Lanbai enplegu eta formazio azoka. Iazko edizioan bezala, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak toki nabarmena izango du azokan horretan. Hezkuntza arloko hiru erakunde eta komunikazio esparruko beste hiru ordezkari egongo dira bisitarien curriculumak jasotzen eta aurrez-aurreko elkarrizketak egiten. Azoka egingo da, 15:00etatik 19:00etara, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean Mondragon Unibertsitateak duen eraikinean.

Lehenengo edizioan bezala, bigarren honetan ere lau gunetan dago antolatuta azoka:

1. **Formazio gunea.** Gune horretan azalduko da MUko eskaintza akademikoa: unibertsitate masterrak, graduondoak, profesionaletzako prestakuntza...
2. **Enpresa gunea.** Erakunde eta enpresen standak. Bertan josoko dira bisitarien curriculumak.
3. **Lan poltsa gunea.** Eusko Jaurlaritzaren Lanbiden, MUKiden eta antzeko zerbitzuetan izena emateko aukera.
4. **Elkarrizketa gunea.** Aukeratutako enpresa edo erakundeetako ordezkariarekin elkarrizketa laburrak egieko txokoa.

Baina, iazko parte hartze handia ikusita, hobekuntzak ere egongo dira aurtun azokan. Batetik, azokaren antolaketan sartu dira bi erakunde publiko: Arrasateko Udala eta Eusko Jaurlaritza. Bestetik, astean zehar, formazioa eta lan bilatzearen gaineko hainbat hitzaldi eskainiko dira Arrasateko Kulturaten. Gainera, azokaren tokia ere egokitu da bisitari gehiago eta modu erosoagoan jaso ahal izateko, hala, elkarrizketaren gunea erakinarekin kanpoko aldean jarriko da, horretarako apropos jarritako karpa handi batean.

Lanbai azokan Mondragon Unibertsitateko fakultate guztiek hartzen dute parte. Aurtengo ediziora, 25 enpresatik gora etorriko da ikasleen curriculumak jasotzera. Horietatik guztietatik, sei erakunde dira hezkuntzarekin eta komunikazioarekin lotutakoak. Hezkuntza arlotik etorriko dira Gasteizko San Viator Ikastola, Donostiako Santo Tomas Lizeoa eta Mondragon Lingua. Komunikazio esparrukoak, ostera, Hekimen elkartea (50 hedabidetik gora batzen duen erakundea), AZK komunikazio agentzia eta ZosmaMedia medioen plangintzaz arduratzen den enpresa.

Sarrera librea du azokak, baina, aurrez aurreko elkarrizketetarako txanda hartzeko, Mondragon Unibertsitateko ikasleek izena eman beharko dute osteguna, hilak 12, baino lehenago.

Azokaren gaineko informazio guztia (elkarrizketetarako txanda eskatzeko modua, hitzaldien gaineko informazio zehatza, parte hartuko duten enpresen zerrenda osoa...) dago jarrita azokaren webgune ofizialean: Lanbai 2. enplegu eta formazioa azoka



Jende asko ibili zen iazko Lanbai azokan.